

BEÑAT ONAINDIA GOÑI jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko uztailaren 1ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

18.- REZIKLETA S. COOP. ENPRESEAGAZ BOLUMEN HANDIKOEN BILKETA ZERBITZUAREN KONTRATUA URTEBETEZ LUZATZEA.

Planteatutako gaia

REZIKLETA S. COOP enpreseagaz daukagun BOLUMEN HANDIKOEN bilketa zerbitzuaren KONTRATUA URTE BETEZ LUZATZEKO proposamena (bigarren eta azken luzapena).

Aurrekariak

Lehenengoa: Etxeko bolumen handiko hondakinak batzeko azken kontratua 2010eko ekainaren 30ean amaitu zan. Ondorioz, zerbitzu hau berriz kontratatu atara zan, prozedura ireki bidez. Kontratua lau urterako izango da (urte bi eta beste urte beteko luzapen bi).

Bigarrena: Bolumen handiko bilketarako kontratua REZIKLETA, S. COOP. enpreseari esleitu jakon urte birako, beste urte bi luzagarri, 2010eko uztailaren 1ean hasita eta 2012ko ekainaren 30ean bukatu zan.

Hirugarrena: Ondoren, REZIKLETA S. COOP. enpreseak kontratu hau beste urte batez (lehen luzapena) luzatzeko asmoa azaldu eutson udalari. Proposamen hau aztertu ondoren, udalak kontratu beste urte batez luzatu eban 2012.07.01tik–2013.06.30era eta onartutako aurrekontua izan da 24.691,88 € + BEZ.

Laugarrena: 2013ko maiatzaren 17an, REZIKLETA S. COOP. enpreseak kontratu hau beste urte batez (bigarren eta azken luzapena) luzatzeko asmoa azaldu eutson udalari. Laugarren urte honetako prezioa finkatzeko, administrazio baldintza-agirietan agertzen danez, 2. urteko prezioari EAEko azken urterako argitaratutako KPIaren % 85a gehitu behar jako (% 2,7aren % 85a = % 2,295a). Beraz:

4. urtea (2013.07.01–2014.06.30): $24.691,88 \times 1,02295 = 25.258,56 \text{ €} + \text{BEZ}$

$25.258,56 \text{ €} + \text{BEZ} / 12 = 2.104,88 \text{ €/hilero} + \text{BEZ}$

Bosgarrena: REZIKLETA S. COOP. enpreseak emon dauzan zerbitzuaren baldintzak ez dira aldatuko, eta orain arte emondako zerbitzua egokia izan dala adierazten dot.

Argudioak

Bakarra: Kontsignazino nahikoa dago gastu honeri aurre egiteko 00700-44410-2272301 partidatik.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: REZIKLETA S. COOP. enpreseari BOLUMEN HANDIKOEN bilketa zerbitzuaren kontratua URTE BETEZ LUZATZEA (bigarren eta azken luzapena), 2013.07.01tik–2014.06.30era. Eta zerbitzu honengatik, zera ordaintzea:

25.258,56€ + BEZ %10 urte osorako; 2.104,88 € + BEZ %10 hileroko.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko uztailaren 5ean.

ONETSIA
ALKATEA